

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila****Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 513/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 18koa, Bizkaiko kirol-federazioen lehiaketa ofizialak antolatzeako funtzio publikoa bermatzeko administrazio kontuhartzea ezartzen duena.**

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

Halaber, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 5.h) artikulua dio lurralde historikoetako foru-organoei dagokiela, eskumenen artean eta zeini bere lurralde-esparruan, lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jardura pribatuaren kalterik gabe.

Oinarritzat harturik COVID-19ren pandemiak eragindako osasun-krisia zela eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez Espainiako Ministroen Kontseiluak onetsitako alarma-egoeraren deklarazioa eta 2019/20 eta 2020/21 denboraldietako euskal kirol-federazioen lehiaketa ofizialak antolatzeako funtzio publikoa bermatzeko administrazio kontuhartzeari buruzko 2020ko maiatzaren 7ko Ebazpena onetsi zuen Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin modu koordinatuan jokatuz, honakoa onetsi zen: Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1155/2020 Foru Agindua, maiatzaren 19koa, 2019/20 eta 2020/21 denboraldietako Bizkaiko kirol-federazioen lehiaketa ofizialak antolatzeako funtzio publikoa bermatzeko administrazio kontuhartzeari buruzkoa.

Aipatutako Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren maiatzaren 19ko 1155/2020 Foru Aginduaren bosgarren xedapenean ezarrienez, esku hartzeko neurri bereziok ezinbesteko epean luzatuko zirela eta, asko jota, 2020ko abuztuaren 1eko 00:00etan amaituko zirela.

COVID-19ren pandemiari aurre egiteko hartutako ezohiko neurriak erlaxatu badira ere, argi dago profesionalizatu gabeko kirolak, Bizkaiko lurralde-esparruko lehiaketetan gertatzen den bezala, zailtasunak dituela oraindik ere aurrera egiteko. Udalerriak perimetralki ixteak eta pandemiaren bilakaerarekin lotuta hartutako beste neurri batzuek eragiten dute federazioen gobernu-organoek behar bezalako funtzionamendurik ez izatea. Gainera, kirolari eragiten dioten neurriek aldakorrak izaten jarraitzen dute, eta osasun publikoko zein kirolarien euren osasun datuen bilakaeraren arabera lehiaketak baimendu edo debekatu egiten dira.

Bizkaiko federazioek lehiaketa ofizialak antolatzeako beren administrazio-funtzio publikoa behar bezala bete ahal izatea bermatzeko neurriak, beraz, berriz jarri behar dira indarrean.

Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.2 artikulua aitortzen du, Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera, lurraldeko federazioek administrazio-funtzioak betetzen dituztela, besteak beste, beren lehiaketa ofizialen antolaketa. Eta lehen aipatutako gai guztiak lehiaketa ofizial baten antolaketaren muinean sartzen dira. Halaber, 16/2006 Dekretuaren 18. Artikulua foru aldundietako organo eskudunei ahalmena ematen die lurraldeko federazioek betetzen dituzten funtzio publikoak behar bezala betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren zuhurtziazko neurri guztiak hartzeko.

Salbuespen gisa, Bizkaiko lurralde-federazioetako zuzendaritza-batzordeak gaitzea beharrezko bihurtu da, COVID-19ren ondorioz kirol-lehiaketei dagokienez sor daitez-



keen antolamendu-gorabehera guztiak lehenbailehen konpondu ahal izan ditzaten. Kontua da federazioen trabak eta izapideak kentzea; bestela, zuzendaritza-batzordeek eta batzar nagusiek esku hartu beharko lukete, eta, ondoren, Administrazioak, eta federazioei eragotziko litzaieke behar bezalako arintasunez eta segurtasun juridikoz ebaztea oso aldakorrek diren eta osasun-agintariek xedaturikora azkar egokitu behar diren gaiak.

Foru Agindu honetan jasotzen diren neurriak salbuespenezkoak dira, eta, beraz, behinbehinekotasun izaera dute; egungo salbuespen-egoerari erantzuteko behar-beharrezkoa den epean baino ez dituzte ondorioak izango.

Beraz, kontuan harturik Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanen buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua, Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, eta ikusirik zer eskumen ematen dizkidaten hala Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak nola Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehena: Bizkaiko kirol-federazioetako zuzendaritza-batzordeei ahalmena ematea erakunde horiek antolatutako lehiaketei dagokienez sor daitezkeen inguruabar guztiak ezagutu eta ebazteko, COVID-19aren osasun-krisiari aurre egiteko harturiko neurrien ondorioz beharrezkoa balitz, egokitu beharko balira, zein aldarazi. Bereziki, honako hauek lirateke inguruabarrok:

- a) Lehiaketak berriro hasi behar diren ala ez zehaztea.
- b) Lehiaketei berriro ekiten bazaie, noiz eta zer formatutan egin behar diren zehaztuko da.
- c) Berriro hasi ezean, edo berriro hasi arren eta amaitu ezin bada, sailkapen ordena zehaztea, eta, bereziki, talde edo kirolari irabazleak edo bestelako kirol-eskubi-deak dituztenak zehaztea.
- d) Lehiaketa berrekiten ez bada, edo berriro ekin arren amaiera normala lortu ezin bada, hurrengo denboraldirako maila-igoeren eta/edo jaitsieren araubidea zehaztea, beste kirol-federazio batzuek beren lehiaketen esparruan duten eskumena errespetatuz.
- e) Lehiaketetan parte hartzen duten plantilletako kideak COVID-19arekin kutsatzeagatik edo antzeko egoerengatik lehiaketak eteteko arrazoiak eta prozedurak ebazteko jarraitu beharreko irizpideak zehaztea, bai eta lehiaketen data berriak ezartzea eta/edo ez-agertzeen ondorioak zehazteko irizpideak finkatzea ere.
- f) Beharrezkoa balitz, lehiaketa-eredu edo -egitura berriak onartzea, bai 2020/2021 denboraldia edo 2020. urtea amaitzeko, bai hurrengo hasteko ere, aurreko ataletan deskribatutako antolamendu-aldaketen ondorioz.
- g) Aurreko ataletan adierazitako gaiekin zerikusia duen beste edozein kontu zehaztea, eta, oro har, COVID-19aren krisiaren ondorioz sor daitezkeen gorabeheren edo supostuen aurrean lehiaketei eragiten dien beste edozein alderdi.

Bigarrena: Kasu horietan, zuzendaritza- batzordeen ebazpenak presaz hartuko dira, eta ez da nahitaezkoa izango balizko erabakien eraginpean egon daitezkeen pertsonen edo erakundeen entzunaldia ematea. Ebazpen horiek arrazoituak eta behar bezala argitaratuak izango dira, federazioaren webgune ofizialean denek jakin dezaten eta ebazpen horiek zuzenean eragiten dieten erakundeen jakinaraziko zaie. Eta, horretarako deitzen den lehenengo batzar orokorrean ere jakinaraziko dira.

Hirugarrena: Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzearekin zerikusia duten zuzendaritza-batzordeen ebazpenek federazio-bidea agortuko dute, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.



Laugarrena: Bizkaiko kirol-federazioetako zuzendaritza batzordeek eskumen osoa izango dute ebazpen honen aplikazio-eremuko lehiaketa ofizialei dagokienez sortzen diren alderdi guztiak ebazteko, eta ez zaizkie erabat aplikatuko abian den denboraldiko lehiaketa erregelamenduak, oinarriak edo egutegiak.

Bosgarrena: Foru Agindu honetan aurreikusitako kontuhartzeko salbuespenezko neurriek indarrean jarraituko dute 2020/21 denboraldiko edo, denboraldia urte naturala duten federazioen kasuan, 2020. urteko kirol lehiaketak amaitzeko eta 2021/2022 denboraldia edo 2021. urtea antolatzeko ezinbesteko epean, eta, gehienez ere, 2021eko abuztuaren 1eko 00:00etan amaituko dira, pandemiaren bilakaeraren eta aplikatu beharreko osasun neurrien arabera luzapenik adosten ez bada.

Seigarrena: Foru agindu honen aurka, administrazio-bidea amaitu baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andreari hilabeteko (1) epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko (2) epearen barruan; epe biak jakinarazpen egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko dira.

Zazpigarrena: Foru Agindu hau banan-banan jakinaraziko zaie euskal kirol-federazio guztiei. Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da halaber, jende guztiak horren berri izan dezan.

Bilbon, 2021eko otsailaren 18an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA